



ARALARKO PARKE NATURALEKO 2019ko KUDEAKETA MEMORIA

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskariz, Aralarko Baliabide Naturalen Antolamenduko Plana onartu zuen, 168/1994 Dekretuaren bidez, eta aldi berean Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duen 169/1994 Dekretua onartu zuen.

Deklarazio honen helburuak hauek dira:

- Parkearen eremuan dauden ekosistemak babestu, artatu eta lehengo egoerara itzularaztea
- aldeko gizarte eta ekonomi alderdiak sustatzea
- nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jarduera tradizionalak suspertzea
- natur balioen ezagutza eta gozamen erazkoa suspertzea
- ikerketa zientifikoa suspertzea

Bestalde, Aralarko Parke Naturala Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu zen 84/2016 Dekretuan, Batasunaren intereseko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen arabera betekizun ekologikoak kontuan hartuta, behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezartzeko.

Memoria hau 2019an Parke Naturalean egindako jarduketei buruzkoa da eta arlo desberdinak kudeatzen dituzten arduradunak emandako informazioarekin egina dago.

2. JARDUKETAK

2.1. Erabilera publikoa

2.1.1. Parketxea

Aralarko Parke Naturalaren Parketxe hedatuaren kudeaketa (Barandiaran museoa eta Lizarrustiko etxea) *GPS Fundazioak* egiten du, Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritzak finantzatuta. Aldi berean, fundazio honek *Artelatz ingurumen zerbitzuak* enpresari esleitu zion bisitarien arreta zerbitzua eta gaur egun natur balioen eta euskal kulturaren ezagutza zabaltzeko ardura du.

Bisitari gehienak hezkuntza formaleko taldekoak eta antolatzen diren jarduera berezietako taldekoak dira.

2.1.2. Azpiegiturak zaindu eta hobetzeko lanak

Aralarko parkean dauden ibilbide eta atsedenlekuak zaindu eta hobetzeko ardura Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko zerbitzuak du eta hauen seinaleztapen eta mantentze lanak egiten ditu.

2.1.3. Argitalpenak, material didaktikoa eta sustapenekoak

Aurten ez dira argitalpenik egin.



2.2. Basoak

Parkean dauden eta Onura Publikoko mendiak diren basoetan baso bideak konpondu, ezpondak garbitu eta landaketan sasi-garbiketak egin dira nagusiki:

- Uholde-urek eragindako kalteak konpondu, Agauntza mendiko Atxu, Palata eta Areetza inguruetakoko baso-bidean.
- Aitzarte eta Marumendi mendietako pistetan ezponden garbiketa mekanizatua.
- 9 ha-ko hostozabalen landaketaren udako garbiketa, Aitzarte mendian.
- Marumendin, 0,6 ha-ko artadian udako garbiketa eta itxitura konpondu.

2.3. Larreak

2.3.1. Larreak zaintzea

Egido mendian garoa eta sasia xehaketa egin da 49 ha-tan eta Agauntza mendian Artxurbi izeneko parajeen eskuzko xehaketa eta itxitura berri egin da.

2.3.2. Enirio-Aralarko Mankomunitatea

Uztaila arte egindako lanak honako hauek izan dira: Enirio-Doniturrietako bidea bukatu, Arritzagako gaztategian sorgailu-elektrikoa konpondu, Doniturrieta eta Esnaurretako kloradoreen mantentze lanak txaboletan konponketak, eskorta berriak eraiki eta maiatzak 1eko festa antolatu.

Uztailatik aurrera, hauteskundeak izan zirela eta, Mankomunitateko kudeaketa organoa osatzen duten arduradunak aldatu ziren. Gero Ariñate eta Elordiko ur deposituak eta askak egin ziren eta bost txaboletan hobekuntzak egin ziren.

2.4. Basa animaliak eta landareak

2.4.1. Animalia eta landare babestuak

Babestuta dauden muturluze piriniarra, bisoi europarra eta harkaitzetako hegaztiei (sai zuria, sai arrea, belatza...) jarraipenak egiten zaizkie. Eta baita parkean dagoen eta katalogatuta dauden landare espeziei ere.

Gymnademina gabasiana (*Nigritella gabasiana*) eta *Lathyrus vivantii* espezieekin iazko lanekin jarraitu da, kartografia osatuz eta azterketa demografikoarekin jarraituz. Baita habitataren karakterizazioarako inbentario floristikoak egin dira.

Pulsatilla alpina eta *Armeria pubinervis* espezien Pardarriko populazioak konfirmatu dira eta *Paris quadrifolia*, *Aconitum variegatum* eta *Carlina acaulis*-aren aleak aurkitu dira.

2.4.2. Landare inbaditzaileak

Parkean antzeman diren landare inbaditzaileen aurkako lanak egin dira, zehazki, *Buddleja davidii* (Zaldibitik Larraitzako igoeran), *Fallopia japonica* (Ataungo Kaxatetik Aiarako igoera eta erreka arteko unada/Lareoko urtegiaren eremu hurbilean/ Amezketako hiri-gaingan) eta *Ailanthus altissima* (Ataungo Kaxeta inguruan)

2.4.3. Ehiza

2019-2020 denboraldian egindako ehiza larriko 86 uxaldietan 121 basurde eta 15 orkatz harrapatu dira.



2.5. Kultur ondarea

EuskoIker fundazioak, Aralarko paisaiaren bilakaera eta populazioaren dinamikaren inguruko ikerketarekin jarraitzen du, Jose Antonio Mugika zuzendari duela. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleekin, miaketa-zuloak eta zundaketak egin dituzte.

2019 urtean bi jarduera egin dira Aralarko ondarearen inguruan. Alde batetik, landa-lana Aiatzio inguruan, eta bestetik, azken bost bat urtetan Beaskiarteko gaintxoan egindako jarduera arkeologikoen emaitzak prestatu dira Munibe aldizkarian argitaratuak izan daitezzen.

2.6. Proiektuak

LIFE Baccata

Proiektu hau Kantauriar mendikatean dauden Natura 2000ko eremu batzuetan garatzen ari da, horien artean Aralar.

Helburua da lehenasuna duen 9580 “*Taxus baccata-ko baso mediterraneoak*” habitata kontserbatu eta bultzatu. Horretarako habitata ezagutzeko eta zehazteko karakterizazio lan bat egin da eta orain hainbat ekintza egiten ari dira (habitataren hobekuntza, belarjaleen kontrolak, landaketak, jarraipena, sentsibilizazioa, eta abar), horietako batzuk Aralarren.

Aurten Pagoetatik ekarritako 54 hagin Goroskintxu aldean sartu dira.

LIFE Oreka mendian

Proiektu honek mendiko larreak kudeatzeko estrategia bateratua garatzea kontserbazio interesen eta mendiak erabiltzen dituztenen interesen arteko oreka bilatzea du helburu. Euskadin, proiektuaren ekintzak Natura 2000 Sareko 15 lekutan egiten dira, horien artean Aralarren.

Ekintza horien artean, ura dagoen eremu txiki batzuen ebaluazioa eta eboluzioa aztertzen ari dira. Jarraipena 4 eremu babestuetako 18 lekutan egiten da eta horietako 4 Aralarren kokatzen dira (Alotza, Katxine, Beaskin eta Gaztesui)

3. AURREKONTU EKONOMIKOAREN BALANTZEA

MANKOMUNITATEA:

- Enirio-Doniturrieta bidearen eraikuntza	24.059,00 €
- Ariñate eta Elordiko ur deposituak	57.400,00 €
- Txabola desberdinen konponketaketak eta hobekuntzak	5.646,00 €
- Doniturrieta garakoa II txabolaren teilatua	15.412,00 €
- Eskorta berrien eraikuntza	4.377,00 €
- Maiatzak Ieko festa antolaketa	1.800,00 €
- Maiatzak Ieko festako bazkaria	3.700,00 €
- Administrazio eta zainketa lanak	36.871,00 €

LARREAK:

- Agauntza mendian (Ataun) xehaketa eta itxitura berritu	42.389,54 €
- Egido mendian (Abaltzisketa) otea eta sasia xehatzea	21.829,50 €



BASOAK:

- LIFE baccata	300,00 €
- Bide-ezponda garbiketak Aitzarte eta Marumendin	5.676,00 €
- Baso-landaketen garbiketak Aitzarte eta Marumendin	7.074,75 €
- Baso-bideen konponketak Agauntza mendian	6.779,63 €

ERABILERA PUBLIKOA:

PARKETXEA:

- Artapena eta dinamizazioa	98.166,00 €
- Kontsumoak eta gastuak	42.895,00 €
- Inbertsioak	17.475,00 €

IBILBIDEAK:

- Lizarrustiko atsedenlekuen mantentze eta konponketa lanak	3.029,10 €
- Panelak eta seinaleak berritu	4.749,13 €
- Kontagailuen irakurketa	2.343,75 €
- GR ibilbideen sasi-garbiketa	3.123,33 €
- Ibilbide sarearen mantentze lanak	6.265,15 €

IKERKETAK

- Zundaketa arkeologikoak (EuskoIker)	11.500,00 €
- Babestutako bi espezieen azterketa eta zita berriak	2.200,00 €

4. ADIERAZLEAK

4.1. Inbertsio bolumena

ARALARKO PARKE NATURALEAN EGINDAKO INBERTSIO TOTALA: 435.728 €

Abeltzaintza suspertzea: 187.280 €

Basogintza suspertzea: 19.830 €

Erabilera publikoa suspertzea: 19.510 €

Natur balioen ezagutza suspertzea: 98.166 €

Ikerketa zientifikoa suspertzea: 13.700 €

Kudeaketa: 97.241 €

4.2. Bisitari kopurua


4.2.1. Parketxea

1.800 pertsona Parke Naturalaren inguruko informazioa eskatu du, 2.264 bisitari parketxera sartu dira, 3.211 pertsona antolatuta diren 20 jardueretan parte hartu dute eta 1.404 ume ingurumen hezkuntzarekin lotutako ekintzetan egon dira.

Horrela, 2019 urtean Aralako parketxe hedatuak 10.307 bisitari artatu ditu.

4.2.2 Ibilbideak

Hiru kontagailu daude Aralarko Parkeko hiru lekuetan. Bata, Larraiztik Abaltzisketako herrigunera doan bide irisgarritasunean, bestea, Larraitz-Txindoki bidean; eta hirugarrena, Lizarrustitik Lareoko bidean.



Kontagailu desberdinetatik pasa diren pertsona kopuruak 2019 urtean, hauek izan dira:

- Abaltzisketako bide irisgarria: 26.782 pertsona
- Txindokiko igoerako bidean: 34.726 pertsona
- Lareoko bidean: 14.145 pertsona

4.3. Arau hausteak direla eta jarritako salaketak

Ez da salaketarik jarri.

4.4. Ibilgailuen baimenak

Enirio-Aralar Mankomunitateko eremuan baimena behar da motordun ibilgailuekin ibiltzeko. Mankomunitateak baimen batzuk kudeatzen ditu eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko zerbitzuak beste batzuk. Hauek dira 2018 urterako emandako baimenak:

ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEA	MENDIAK ETA HABITATAK KUDEATZEKO ZERBITZUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Abeltzainak: 159 ibilgailu - Bestelako lanak: 7 ibilgailu - Ehiztariak: 6 ibilgailu - Buruntzuntzin Elkarteak: ibilgailu bat 	<ul style="list-style-type: none"> - Felix Ugarte Elkarteak: 2 ibilgailu - Itelazpi: ibilgailu bat

4.5. Jarduerak egiteko baimenak

- * Ehunmilak, mendi lasterketa egiteko.
- * Felix Ugarte Elkarte, lurpeko eremuen ikerketa egiteko.
- * EuskoIker fundazioa, indusketa arkeologikoak egiteko.

4.6. Patronatuaren bilerak

Azkena 2018ko maiatzaren 18an.

4.7. Langileak

- Foru Aldundiko sei teknikari, jardunaldiaren zati batean Parkeko eremu eta arlo desberdinak kudeatzen dituztenak.
- Foru Aldundiko zazpi basozain, zaintzen dituzten eremuen zati bat Aralarko Parke Naturalean dutenak eta Mankomunitateko basozain bat.